BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

1473

AGINDUA, 2012ko otsailaren 29koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena. Honen bidez, 2010eko maiatzaren 7ko Agindua aldatzen da; hain zuzen, Basque Culinary Center Fundazioaren Gastronomia Zientzien Fakultatea Mondragon Unibertsitateari atxikitzeko baimena ematen du agindu horrek.

Euskal Autonomia Erkidegoak, bere autonomia-estatutuko 16. artikuluak xedatzen duenez, irakaskuntza-eskumena du, eskumenaren luze-zabalean, maila eta gradu guztietan, eta molde eta espezialitate orotan, eta, betiere, arau hauek agintzen dutenarekin bat etorriz: Espainiako Konstituzioaren lehen xedapen gehigarriak; 6/2001 Lege Organikoak, abenduaren 21ekoak, Unibertsitateei buruzkoak; 4/2007 Lege Organikoak, apirilaren 12koak, Unibertsitateei buruzko legea aldatzekoak; eta 3/2004 Legeak, otsailaren 25ekoak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak.

Otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, 62.2 artikuluan arautzen ditu unibertsitate publikoen gaietan eskumena duen sailari dagozkion ahalmenak, eta horien artean aipatzen ditu honako hauek: ikastetxe publikoak edo publikoak ez direnak atxikitzea onestea eta atxikipena kentzea, unibertsitateko titulu ofizialen ikasketak eskain ditzaten; eta Euskal Autonomia Erkidegoak onartutako titulu ofizialak lortzeko irakaskuntzak, ikasgela barrukoak edo birtualak, ezarri edo ezabatzea.

Apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak aldatu egin zuen abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa, Unibertsitateei buruzkoa, eta, aldaketa horren harian, bere artikulu bakarreko bederatzigarren puntuak idazketa berria ematen dio 6/2001 Lege Organikoko 11.1 artikuluari. Testu-aldaketa horren ondorioz, posible da, hitzarmen bidez, unibertsitate pribatu bati atxikitzea ikastetxe pribatu bat, titulu ofizialak eta lurralde nazional osoan baliozkoak direnak lortzeko bide ematen duten ikasketak irakats ditzaten; izan ere, lege-aldaketa hori egin aurretik, soilik unibertsitate publikoen esku zegoen atxikitze-aukera hori. Edonola ere, atxikitze hori gertatzeko, autonomia-erkidegoen onespena behar da, unibertsitateen proposamena jaso ondoren.

Apirilaren 12ko 557/1991 Errege Dekretuak, unibertsitateak eta unibertsitate-zentroak sortu eta aitortzeari buruzkoak, 16. artikuluan xedatzen du, ikastetxe publikoak edo pribatuak unibertsitatetara atxikitzeko, ezinbestekoa dela errege-dekretuak berak atxikitze horiek baimentzeko eskatzen dituen gutxieneko baldintza materialak eta irakaskuntzako baldintzak betetzea. Eskakizun horri erreparatuta, adierazi behar da ikastetxeak bete egiten dituela arau horrek ezarritako baldintza orokorrak.

Mondragon Unibertsitatea S. Coop.-eko Errektore Kontseiluak 2009ko otsailaren 27an onartu zuen Gastronomia Zientzien Fakultatea sortzea Mondragon Unibertsitateari atxikitako ikastegi modura, eta baimena eman zion errektoreari Mondragon Unibertsitatearen eta Basque Culinary Center Fundazioaren arteko atxikitze-hitzarmena sinatzeko, eta Eusko Jaurlaritzari horretarako baimena eskatzeko.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko maiatzaren 7ko Aginduaren bidez, Basque Culinary Center Fundazioaren Gastronomia Zientzien Fakultatea Mondragon Unibertsitateari atxikitzeko baimena eman zen.

2011ko uztailaren 27an, Basque Culinary Center Hezkuntza Fundazioa eratu zen, Gastronomiako eta Sukaldeko Zientzien zenbait arlotan prestakuntza emateko helburuarekin. Horrez gain, 2011ko irailaren 1ean, Basque Culinary Center Fundazioak eta Basque Culinary Center Hezkuntza Fundazioak hitzarmen bat izenpetu zuten. Hitzarmen horren bidez, Basque Culinary Center Fundazioak prestakuntzaren arduradun izateari utzi zion, eta Basque Culinary Center Hezkuntza Fundazioak hartu zuen ardura hori; hau da, titulartasun juridikoa Gastronomiako Zientzien fakultatearena izatetik, Basque Culinary Center Hezkuntza Fundazioarena izatera pasatu zen.

Horren guztiaren ondorioz, Mondragon Unibertsitateak atxikipen-hitzarmen berri bat izenpetu zuen 2012ko otsailaren 7an. Horren bidez, lehen Gastronomiako Zientzien fakultateak zuen titulartasun juridikoa Basque Culinary Center Hezkuntza Fundazioak hartu zuen.

Horiek horrela, Mondragon Unibertsitateak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari igorri zion eskaera, ondoren Eusko Jaurlaritzari bidalitakoa, kontuan hartuta (Basque Culinary Center Fundazioko Gastronomia Fakultatea Mondragon Unibertsitateari atxikitzea onartzen zuen agindua aldatzeko eskaera, alegia), eta abenduaren 21eko 6/2011 Lege Organikoak, Unibertsitateei buruzkoak, 11.1 artikuluan xedatzen duena betez:

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– 2010eko maiatzaren 7ko Agindua aldatzea. Agindu horrek Basque Culinary Center Fundazioaren Gastronomia Zientzien Fakultatea Mondragon Unibertsitateari atxikitzeko baimena ematen du, modu honetan:

«Basque Culinary Center Hezkuntza Fundazioko Gastronomia Zientzien Fakultatea Mondragon Unibertsitateari atxikitzea onartzea.»

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko otsailaren 29a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.